



Lagunduck

Mójate por la *justizia*-z blai

Carrera de patos solidaria en el Urumea . 4 junio 16:30

Ahate lasterketa solidarioa . Ekainaren 4ean 16:30etan

PARTE HARTZEKO...
**ADOPTATU
AHATE BAT**
MAIATZAREN 16tik
EKAINAREN 3ra
GURE SALMENTA POSTUETAN

PARA PARTICIPAR...
**ADOPTA
UN PATO**
DEL 16 DE MAYO AL
3 DE JUNIO
EN NUESTROS PUNTOS DE VENTA

PREMIOS PARA LOS PRIMEROS PUESTOS y además:

SARIAK LEHENENGO POSTUENTZAT eta gainera:

Concurso fotográfico, hinchables, musica en directo...

Argazki txapelketa, puzgarriak, musika zuzenean...

INFORMATE AQUÍ / INFORMA ZAITEZ

www.lagunduckdonostia.wordpress.com

Facebook: Acción Marianista

PUNTOS DE VENTA/SALMENTA POSTUAK:

Adopta ONLINE en nuestra página web

Colegio SUMMA Aldapeta 16-18h

(Amara) Pastelería Cristina, Art Café

(Centro) Carnicería Nicasio, Musical 72, Kata 4, Mesón Martín

(Antigua) Panadería Ogi Berri Oihenart

(Aiete) Cafetería Kikara, Cafetería Pagotxa

(Gros) Zurriola surf eskola, Peluquería Bette Epoque



Acción Marianista
para el Desarrollo



AHATE ASKATZEA URUMEAN, TOGON ETXALDE BAT EGITEKO DIRUA LORTZEKO

Ekintza Marianista garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak gonbit egiten die donostiar guztiei ahate bat adoptatzera, hurrengo larunbatean, ekainak 4, Mundaiz zubitik hasita Urumea ibaian izango den lasterketa handirako. Ekimen solidario honen helburua da dirua lortzea Togoko Kaptchile herrian nekazaritzako eta abeltzaintzako etxalde bat egiteko.

Berdintasuneko eta Lankidetzako zinegotzi Duñike Agirrezabalagak adierazi duenez, "ahateak maiatzaren 16tik ekainaren 4ra adoptatu ahal izango dira". Bi modu daude 5000 ahateetako bat adoptatzeko: hirian jarritako salmenta puntuetan edo online adoptatuz. Hiru euro besterik ez dute balio".

Online erosteko eta ekimenari buruzko informazioa lortzeko, www.lagunduckdonostia.wordpress.com web orria bisita daiteke. "Gainera, lasterketaren egunean hirian egongo ez direnek ere berdin-berdin har dezakete parte, hala nahi izanez gero, adoptatutako ahatea identifikatuta egongo baita. Ondoren, Ekintza Marianistaren webgunean eta <https://www.facebook.com/accionmarianista> helbidean kontsultatu ahal izango dute lasterketaren emaitza", Duñike Agirrezabalagak azaldu duenez.

Bestalde, antolaketaren arduradun Mikel Arrietak esan duenez, "16:30ean hasita, batukada, puzgarriak, zuzeneko musika, aurpegi margotzea eta abar izango dira. 18:00etan egingo da ahate lasterketa, eta 19:00etan sari banaketa izango da. Ekintza Marianistak postu bat jarriko du helmugan, Maria Cristina zubian.

Lasterken erabilitako ahateak ibaitik hartu eta hurrengo urterako gordeko dituzte. Gainera, argazki lehiaketa bat ere egingo dute ekainaren 4an Urumean argazkiak ateratzen dituztenen artean. Horretarako, Instagram, Twitter edo Facebooken jarri beharko dituzte, [#lagunduckdonostia](https://www.facebook.com/accionmarianista) traolarekin. Irabazlea nor den ekainaren 6an emango dute ezagutzera, webgunean eta Facebooken.

PROIEKTU SOLIDARIOA

Mikel Arrietak adierazi duenez, "lortutako dirua moja marianistek Togon duten proiektu solidario bat finantzatzeko erabiliko dute: nekazaritzako eta artzaintzako etxalde bat egitea Kpatchile herrian, gazteei nekazaritzako eta abeltzaintzako teknika sostengagarriak erakusteko eta landagune horretan enplegua eta autoenplegua sortzeko".

Helburua da herritarrei bizibide berri bat eskaintzea, hango gazteen interesa pizteko modukoa. Etxaldean, 1000 gazte, 1000 emakume eta 3000 nekazari trebatu litezke. Hango kideak Maria Sortzez Garbiaren Ahizpak dira. Hain zuzen, 1963. urtetik daude marianistak Togon, eta hainbat aldetan egiten duten

lan: neskontzako ikastetxe-barnetegi bat dute, emakume taldeak sustatzen dituzte herrietan, mikroreditu laguntzak ematen dituzte, gizarte arreta ematen dute parrokiari eta zentro mediko-sozial bat ere badute. Hangoek jarriko dituzte lurrak, 10 bat hektarea, eta Ekintza Marianistaren kontura izango da instalazioak egitea, ekipamendua jartzea eta lehenengo animaliak eta haziak erostea. Proiektu osoak 80.000 euroren aurrekontua du eta bi urtean burutuko dute. Ekintza Marianistak 2016an 25.000 € jartzeko konpromisoa hartu du.

EKINTZA MARIANISTARI BURUZ

Garapenerako Ekintza Marianista Espainiako Familia Marianistaren GKEa da. 2009. urtean sortu zen, eta haren xedea da Familia Marianistak lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren arloan egiten dituen ekintzak bideratzea, hainbat herrialdeetako proiektuak babestuz eta gizarte egitura bidegabeak eraldatzeko heziz jendea, ahulenek beste herritarrek dituzten eskubide, ondasun eta zerbitzu berberak izan ditzaten. Horretarako, proiektuak egiten dituzte, sentsibilizazioa sustatzen dute, pertsonak hezi eta aitortu egiten dituzte, eta beste herrialde batzuekin loturak estutzen dituzte. Ekintza Marianistak 10 ordezkari ditu Espainia osoan eta 120 boluntario aritzen dira horietan lanean. Unean-unean, beste 1500 boluntariok hartzen dute parte urtean zehar egiten dituzten jardueran ugarietan, eta nazioarteko boluntarioak ere badituzte. 2016an, 25 proiektu ari dira babesten, hegoaldeko 8 herrialdeetan, eta horietarako 286000 euro sartu dituzte aurrekontuan.

LOTURA INTERESGARRIAK

Lagunduck-en webgunea: www.lagunduckdonostia.wordpress.com

Ekintza Marianistaren Facebooka: <https://www.facebook.com/accionmarianista>

Youtube: <https://www.youtube.com/watch?v=V6ULDDLzahw>

SALMENTA PUNTUAK

Erdialdea:

Aldapetako SUMMA ikastetxea: astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 18:00etara.

Urrestarazu harategia: San Martin azoka.

Musical 72: Artzain Onaren plaza, 10.

KATA 4: Santa Katalina, 4.

Mesón Martín: Elkano kalea, 7.

Amara.

Ogi Berri Cristina gozo denda: Madril hiribidea, 7.

Art Café: Illunbe kalea, 9.

Antigua:

Ogi Berri Oihenart gozo denda: Oihenart kalea, 8.

Aiete:

Kikara kafetegia: Borroto kalea, 15 (Etxadi).
Pagotxa kafetegia: Zuhaiuken pasealekua, 2.

Gros:

Zurriola surf eskola: Usandizaga kalea, 14.
Belle Epoque ile apaindegia: Kale Berria, 2.